



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

## PRENTSA-OHARRA

### **LEAK EZTABAIDATU EGIN DU BILBOKO ZAZPIKALEAK BIRGAITZEKO PLAN BEREZIA ALDATZEKO PROPOSAMENA**

Bilbo, 2016ko ekainaren 15a.

Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) Bilboko Zazpikaleak Birgaitzeko Plan Berezia aldatzeko proposamenari buruzko txosten bat helarazi dio Bilboko Udalari.

LEAk nabarmendu du proposamenak mugatzen dituela ekimen ekonomikoa eta lehia, Zazpikaleetako aldearen arabera (irekitzeko baimenik ez, gehienezko kopurua finkatzea, ostalaritza-, banku-, aseguru- eta janari-establezimenduen arteko distantziak murriztea).

Legeak lehia murriztea baimentzen die administrazioei beharrezkoa denean bakarrik, honako arrazoi hauengatik: “ordena publikoa, segurtasun publikoa, osasun publikoa eta ingurumenaren babesa direla medio justifikatuta egotea, edo baliabide naturalen eskasiak edo eragozpen tekniko nabariak izateak merkatuko eragile ekonomiko kopurua mugatzen badute”. LEAk ondorioztatu du proposatutako mugaketak ezin direla beharrezkotzat jo.

Halaber, proposatutako neurrien ondorio negatiboak azpimarratu ditu LEAk; besteak beste, herritarrentzako eskaintza murriztea –egiaztatutako esperientziek adierazten dute prezioen igoerak dakartzala–; kalitate- edo berrikuntza-galera; merkatuan dauden operatzaileen posizio pribilegiatua; efizienteagoak izan daitezkeen operatzaileen sarrera mugatzea; eta “bigarren eskuko lizentzien merkatu” bat sortzea, lizentzien eta establezimenduen prezioak bidegabeki alda ditzakeena.

Esperientzia konparatzaileek eztabaidatu egin dute horrelako neurriak baliagarriak izan daitezela Udalaren helburuak lortzeko. Beraz, Udalari aholkatzen dio lehia hainbeste murrizten ez duten neurriak proposatzea, egon daitezkeen merkatuko akatsak zuzendu eta herritarren interesak laguntzen dituztenak.



Txosten osoa honako esteka honetan irakur daiteke: <https://goo.gl/jR07RS>

Lehiaren Euskal Agintaritzza izaera administratiboko erakunde autonomoa da, eta erakunde eta funtzio-autonomia du bere eginkizunak betetzeko. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoei dagokienez. Bere eginkizunen artean aipatzekoa da herri-administrazioarekiko harremana, hark proposatzen baitizkio arau-testuak botere legegileari.